

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2013ko otsailaren 15a. IX. urtea. 2.546. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Inaxio Perurena Harri jasotzailea

«Oso pozik nago, gainera pisu handia kendu banu bezala sentitzen naiz»

Hirugarrenean lortu du Inaxio Perurena leitzarrak 300 kiloko harria jasotzea; aurreko igandean lortu zuen marka, eta beste bi saiakeretan baino lasaiago aritu zela esan du

Beretzat astero harriak jasotzen jarraitzea «nahiko erronka» dela esan du; hurrengo plazaratzea 302 kiloko harriarekin izan daitekeela dio, «ongi prestatu eta gero» **7**



Oskorriko kideez gain, Kilometroak 2013ko koordinatzaile Unai Igartua eta Tolosako Udaleko Jokin Ansorena ere agerraldian izan ziren. **LURKIZU**

Gabriel Aresti poetaren garaira itzultzeko aukera Oskorriren eskutik

Oskorri musika taldeak hilaren 22an estreinatuko du 'Gabriel Aresti biszitan' emanaldi berria Tolosako Leidor aretoan; Kilometroak 2013 jaiaren barruko ekitaldia izango da **2**

Inauterietan tolosarren parte hartzea nabarmendu du udalak

Eguraldi txarra izan arren, ekitaldi guztiak egin direla adierazi du; bisitari kopurua %30 jaitsi da **3**

Maila handiko xare partidak ikusteko aukera izango da Iruran igandero

Bi txapelketa antolatu dituzte, etzi hasi eta apirilaren 21a arte **4**

'Gazta zati bat' filmaren soinu banda zuzenean, Leitzan **6**



Laser Promozioa:
Otsailaren 18tik martxoaren 4ra

-%20 deskontua
aurpegiko eta gorputzeko
5 sesioko abonuan

SHUYANA
ESTETIKA

ESTETIKA: Eskolapiotako
Lorategiak 3,1A. T. 943 675 489
KOSMETIKA:
Korreo 1. T. 943 671 468

Otsailaren 22an
Automakillaje kurtsoa

Azken lekuak!

‘Tolosaldeko marea zuria’ antolatu du TOPA igande honetarako

Osasun publikoa defendatzeko mobilizazioa 12:30ean hasiko da Trianguloa plaza

I. Urkizu Tolosa

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde (TOPA) koordinakundeak, beste mobilizazio bat antolatu du igande honetarako: marea zuria-ekin bat egiteko deia zabaldu dute, horrela, Tolosaldean.

Tolosa Asuncion klinika publiko egiteko, nahiz Tolosa espezialitatean anbulatorioa lehenengo jarduerara itzultzeko, sinadurak biltzen hasi ziren, eta orduz geroztik hamaika dira antolatu dituzten mobilizazioak; gaur egun, 18.917 herritarrek sinatu dute, eskualdean, TOPAren eskarrien alde.

Horrela, bada, igandea 12:30ean elkartuko dira, Trianguloa plazan, marea zuria-ekin bat egiteko, eta elkarretaratzea egingo dute, lehenik, *Osasun publikoa ez da saltzen, defendatu egiten da* lelopean.

Jarraian, martxa abiaraziko dute, Osasun zentzuraino, eta bertan, sinbolikoki okupatuko dute eraikina.

Beste hiriekin bat eginez

Otsailaren 17a, igandea, ez da mobilizazio eguna eskualdean soilik izango.

Herrialde Katalanetan, esaterako, Bartzelona eta Valentzia izango dira, osasun publikoaren aldeko aldarrikapen gune. Espainiako beste zenbait hiritan, berriz, aldarrikapen bertsuak egingo dituzte etzi, marea zuria-ekin bat eginez.

Horrela, Madrilan, Malagan, Murtzian, Segovian, Toledon, Zaragozan, Cuencan eta Almansan izango dira protestak, besteak beste.

• tolosa@hitza.info

Formatu akustikoan Gabriel Aresti gogora ekarriko du Oskorrik, Leidorren

Kilometroak 2013ko jardueretako bat izango da estreinaldia, eta sarrerak eskuragarri daude jada

Itzea Urkizu Tolosa

Gabriel Aresti poetaren garaira itzuli nahi izan du Oskorri musika taldeak, eta *Gabriel Aresti bizsitan* emanaldi berriaren estreinaldia Tolosan izango da, datorren otsailaren 22an. Natxo De Felipe musikariak azaldu duenez, Arestirekin elkarlanean osatu zuten errepertorioaz gain, poetaren eraginpean sortutako kantuak ere taularatuko dituzte, beren hastapenetako formatu akustikora itzuliz.

Oskorriko kideez gain, Tolosako Udaleko kultur teknikari Jokin Ansoena, eta Kilometroak 2013ko koordinatzaile Unai Igartua ere izan dira, Donostiako Victoria Eugeniako agerraldian. Izan ere, Laskorain ikastola antolatzen ari den Kilometroak jaia-aren inguruko egitasmoetako bat izango da, Oskorriren kontzertua.

«Proiektua oso-oso interesgarria iruditzen zitzagun hasieratik, eta gainera, gure helburuekin bat egiten du», azaldu du Igartuak. Horrela, emanaldiaren harira, Laskorain ikastolako ikasleekin lanean ari dira, Gabriel Arestiren bizitzaz, haren lanaz zein eraginak. *Gabriel Aresti bizsitan* ikuskizuna, berriz, Tolosako Udalerriaren laguntzaz, eta elkarlanean txertatu dute, Kilometroak 2013ren barruan.

Entzuleengandik gertuago

«Aspaldidanik buruan» zuten, Oskorriko kideek, egitasmo hau abian jartzea: «lazko urriaz geroztik ari gara, buru-belarri lanean, Jokin Ansoenak deitu baitzigun estreinaldia Tolosan egiteko, eta otsailaren 22a segituan iritsiko zela ikusi genuen».

Horrela, beraz, «Oskorri forma-



Oskorriko kideez gain, Unai Igartua eta Jokin Ansoena ere agerraldian izan ziren, antolatzaile gisa. I. URKIZU

tu honetara birmoldatzen» aritu dira hilabeteotan, Natxo de Felipe nabarmendu duenez: «Proiektu honetan, azken urteotan Oskorrik izan duen taularetzeko era aldatu nahi izan dugu;



Bere probokatzailerak kutsu hori nolakoa zen ezagutuko dute ikusleek»

NATXO DE FELIPE
Oskorri taldeko kidea

edozein aretotan jotzeko balioko digu, batetik, eta publikoaren gertutasuna sentitzeko». Modu honetara, taldea birstutu dutela azpimarratu dute, eta ikuskizun akustikoaz gozatu ahal izango dute Leidorrean bertaratuak. Xabier Zeberio tolosarrak, berriz, «oso emanaldi intimista» izango dela nabarmendu du bide beretik. Ikuskizuna prestatzeko lane-

tan, maketa bat ere grabatu dute Oskorriko kideek: «Abestietan egindako konponketa berriek nola funtzionatzen duten ikusteko balio izan digu, eta baita sortu nahi izan dugun atmosfera hau era batean edo bestean lantzeak merezi duen ikusteko. Oso garrantzitsua da baldintza onetan grabatzea, eta maketari esker al-dakeeta nabarmenak egin ditugu zenbait abestitan».

Behin estudioan sartzen hasita, disko bat grabatzea izaten da maketa egin ondorengo hurrengo pausoa; Oskorriko kideek, ordea, ez dute, oraindik, ezer erabaki: «Musikariok kontzertuetako gertutasuna nahi izaten dugu, eta guretzat garrantzitsuagoa da oinarrietatik hasia, zimenduetatik. Gaur egun, gainera, oso zaila da disko bat egitea», azaldu du Natxo de Felipek.

Arestiren mundura gerturatuz

Gabriel Aresti bizsitan ikuskizunerako aukeratu dituzten abestiei dagokienez, «oso errepertorio samurra» osatzen dutela azaldu du Natxo de Felipek: «Errepertorio oso orekatua da, eta oso polita. Zenbait abesti oso ezagunak egin ziren sortu genituen garaian, eta beste batzuek, berriz, ez zuten halako oihartzunik izan. Horregatik, gazteentzat ez ezik, helduen-

tzat ere berrikuntzez beteriko emanaldia izango da».

Berrikuntzak, gainera, ez dira musikaren bitartez soilik etorriko, Gabriel Arestiren mundura bertaratu nahiko baitute publikoak. Horrela, bada, Oskorriko kideek Arestirekin izandako harremana nolakoa zen kontatuko dute, eta baita buruz buru eta elkarlanean abestiak nola sortu izan zituzten ere: «Bere probokatzailerak kutsu hori nolakoa zen ezagutuko dute ikusleek, adibidez». Honi guztiari, Arestiren hitzek-gaur egungo egoeran gaurkotatzen ez dutela galdutako Oskorrik, eta haur ere, idazlea ezagutzeko bidea izango da.

«Gazteenek, ikastetxeetan bakarrik izan dute Arestiren berri, eta bere irudi literario hori soilik ezagutzen dute. Gabriel Aresti, ordea, askoz ere gehiago izan zen hori guztia baino; guk berari esker musikatu genituen Bernart Etxepareren poemak, eta berari esker ezagutu genituen, Txirrita edo Pello Errota bezalako bertso-lariak; alfabetatu gabeak, baina gaitasun handikoak», azpimarratu du De Felipek. Idazle bilbotarraren irudia aldatuko zaio publikoari, beraz, taldekideen arabera.

Tolosako estreinaldiaren ondoren, Barakaldon, Getxon nahiz Hazparnen ere izango da *Gabriel Aresti bizsitan*, eta abenduan izango dira euskal hiriburuetan. Datorren otsailaren 22an Leidorren emanaldiaz gozatu nahi duenak, ordea, badu jada, sarrerak erosteko aukera, www.kutxasarrerak.net helbide elektronikoa, 12 euroren truke.



• **Bideoa.** Ikusi, Oskorrik aurkeztu penean eskainitako abestia.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ Iragarki laburrak

LAN ESKARIAK

Etxeko lanak. Etxeko lanak egin nahiz haur eta gaztetxoak zainduz lan egiteko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Gainera, autoa ere badu, lanera iritsi ahal izateko. Horrelako zerbitzuren baterako interesa duen edonork, dei de-zaña, honako telefono zenbakietara: 943 69 68 82 edo 606 52 19 92.



Urtero moduan, Zaldunitan jendez bete zen San Frantzisko pasealekua. I. URKIZU

Eguraldi txarrak baldintzatu arren, agerian geratu da tolosarren inauterizatasuna

Bisitari kopurua murriztu egin bada ere, tolosarren parte hartzea handia izan da; «giro ona» izan da nagusi

Eneritz Maiz Tolosa

Eguraldiak protagonismo handia eduki du bukatu berri diren Tolosako inauterietan. Udalak lehen balantzea egin du, eta ezinbestean aipatu behar izan du eguraldi kaskarrak baldintzatu dituela aurtengo inauteriak: «Euria, hotza eta elurri medio, datuen arabera, bisitari kopurua murriztu egin da, baina ez tolosarren parte hartzea», adierazi dute. Bisitari kopurua %30ean jaitsi dela esan dute. «Eguraldiak traba handiak jarri arren, ekitaldi guztiak ospatu dira, eta bat bera ere ez da bertan behera geratu. Denetan ere, ikusgarritasuna, umore ona eta festa giroa ez dira falta izan», argitu dute. Horregatik guztiagatik, udalak, «tolosar guztiei eskerrak eman nahi dizkie egindako lanagatik eta urtetik urtera jartzen duten ilusioagatik».

Inoiz baino txupinazo jendetsuagoa izan dela argitu du udalak, eta txupinazoaren unetik txaranga doinuek, mozorroek eta kolore biziek hartu zuten Tolosa. Hala, udalak txalotu egin nahi du txarangek egindako lana: «Berriro ere inauterietako ardatz nagusietako bat direla erakutsi dute».

Karrozak eta konpartsak dira inauterietako beste protagonisak, eta irudimenarekin, umorearekin eta lanerako gogoarekin mirariak egin daitezkeela erakutsi dute inauterizaleek. Lehiaketa

tan parte hartzeko baldintzen aldatetek bere eragina izan dutela nabarmendu dute, eta horren adibide, «euskara izan da nagusiki karroza eta konpartsek aukeraturako hizkuntza». Euskara eta parekidetasuna sustatzeko bidean, herritarrek ondo erantzun diote udalaren deiari. Hala ere, karrozen musikaren bolumena dela eta, aurrera begira, neurri berririk hartu beharko direla ere argitu dute: «Askok eta askok ez baitituzte errespetatzen».

Hausnartzeko gaia, zezenena

Aurten, zezen plazarako sarreraren salmentak aldatzekoak ziren baina internet bidezko sistemak huts egin ostean, lehiatilan saldu ziren sarrera guztiak. Datorren urtera begira berriz ere gaia aztertuko dutela iragarri du udalak, baina herritarrei gai honen inguruko hausnarketa egiteko ere eskatu nahi die.

Era berean, bai sarrerak eta baita gonbidapenak segituan bukatu zirela esan dute, baina gero «askok» ez dituztela erabili argitu dute. Honela, txarangen atzetik

jende gutxi sartuz eta eserleku asko hutsik geratuz.

Gainerakoan, inauteri lasaia izan direla esan dute: «Ez da arazo eta gertaera berezirik izan. Normaltasunez eta giro onean joan dira jaiak». Urtero bezala, zenbait lapurreta izan dira, eta udaltzaingoak emandako datuen arabera, 70 bat kartera inguru aurkitu dituzte. Aurreko urteetan baino zerbait gutxiago. Bestetik, DYAKoen arabera, 42 asistentzia egin behar izan dituzte sei egunetan, eta horietatik gehienak, intoxikazio etilikoengatik. Asistentzi hauek ere aurreko urteetan baino gutxiago izan direla esan dute.

Udalak zabor gutxiago sortzearen helburua jarria zuen, eta birziklatzeko aukera eskaintzearekin 25.000 kilo zabor gutxiago sortzea lortu da. Kale garbiketetan, aldiz, eguraldia lagun izan dute, eta iaiz baino ur gutxiago gastatu dute, eta baita 200 litro desinfektagarri gutxiago ere. Amaizteko, «munduko festarik onenak» has-teko gutxiago falta dela ekarri dute gogora: 2014ko Ostegun Gizona otsailaren 27an izango da.

Zizurkilen 'Egia bide, askatasuna amets' ekitaldia, etzi

Torturaren Aurkako Egunaren harira antolatu dute ekitaldia Zizurkilgo Udalak eta Egiari Zor fundazioak

E. Maiz Zizurkil

Asteazkenean izan zen Torturaren Aurkako Eguna, eta egun horretan bete ziren 32 urte Joxe Arregi zizurkildarra jasandako torturen ondorioz hil zela. Omenaldi xumea egin zioten hile-

rrian, baina ekitaldi nagusia igandean, hilak 17, Zizurkilen izango da. 13:00etan Joxe Arregi plazan egingo da Zizurkilgo Udalak eta Egiari Zor fundazioak antolatu duten *Egia bide, askatasuna amets* ekitaldia. Aldez aurretik, 09:00etan Haizetsura mendi ibilaldia egingo dute. Arregiren tortura testigantza euskal memoriaren parte da, eta gizarte osoari parte hartzeko deia egin diote.

Foru Aldundiak ekitaldia egin zuen asteazkenean, eta «egia osoa, eta torturarik gehiago ez gertatzea», eskatu dute.

Irudia ◊ Tolosa



ISTRIPUA VILLABONAN

Auto baten eta TSST enpresako autobus baten arteko istripua izan zen Villabonan, N-1 errepidean, atzo. Tolosarako noranzkoan gertatu zen ezbeharra, herriko irteeran dagoen gasolindegia ondoan, azelerazio karrilean. Bertara joan ziren ertzainak arabera, autoa N-1 errepidera irtetera zihoanean autobusak atzetik jo zuen. Ez zen zauritu larrik egon. Auto gidaria izan zen anbulantzia eraman zuten bakarra, lepokea jarrita. A. IMAZ

www.inmosalbide.com



SALBIDE
Higiezin zerbitzuak

Aia. Baserria berri berria. 125m2-ko bi solairu ditu. 25 m2-ko terraza. Terrenoa, 110.000m2. 50.000.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berri: bi logela, diseinuzko sukualdea, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!

Donostia. Amara-Amezketakalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Itxina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.

Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

Zarautz. Azken Portu. 92m2 ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria. 54.000.000 pezeta.

Zarautz. SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

Zarautz. Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96



Maila handiko xare partidak ikusteko aukera paregabea izango da Iruran

Ametsa Pilota Elkartek antolatuta, Share Elkarte Saria eta Beteranoen Share Txapelketa jokoan

Imanol Garcia Landa Irura

Xarearen hiriburu bihurtuko da Irura datozen asteetan. Igande honetan hasi eta apirilaren 21era arte, xareko bi txapelketa jokatu dira Ametsa trinketean. Share Elkarte Sarian Munduko Txapelketetan aritutakoak edo aurtun egingo denerako prestatzen ari direnak parte hartuko dute eta Beteranoen Share Txapelketan, izenak dioten moduan, beterranoak lehiatuko dira. Aitor Artola antolatzaileak azaldu duenez, «maila handiko xare partidak ikusteko aukera izango da». Ametsa Pilota Elkartek antolatu ditu txapelketak, Share Elkartearen babesarekin eta Irurako Udalaren laguntzarekin.

Beste zenbait urteetan xare partidak antolatu dira, baina azken urteetan ikusi ez den mailaz gozatzeko aukera izango da. «Aurtun Share Elkarteak diru laguntza eman du eta horregatik bere izena duen txapelketa antolatzeko aukera izan dugu», azaldu du Artolak. «Nik uste dut sei bikote nahiko politak osatu ditugula. Espero dugu herrian saltza pixka bat sortzea txapelketekin».

Udazkenean jokatu du Munduko Txapelketa Uruguayn, eta 22 urte azpikoan mailarako prestatzen ari diren bost pilotarik jokatu dute: Julen Apeztegia, Felix Santano, Lukas Limousin, Unai Sarasola eta Beñat Sarasola. Beñat Sainz ere Munduko Txapelketan parte hartzeko da, baina



Share Elkarte Sarian parte hartuko duten zortzi pilotari. HITZA

↓ Parte hartzaileak

BETERANOEN SHARE TXAPELKETA

- A1. Alex Lasa eta J. Cosio.
- A2. Kike Zabala eta losu Yurrita.
- A3. Juan Manuel Diaz eta losu Olano.
- A4. Imanol Caballero eta Iñigo Artola.

orain lesionaturik dagoenez, ezin izango du txapelketan parte hartu.

Pilotari guztiak, bi txapelketetakoak, eskualdekoak dira. Txapelketa bakoitzean sei bikote lehiatuko dira. Hasieran ligaxka

- A5. J. A. Morcuende eta Imanol Lasa.
- A6. Jokin Lasa eta Igor Beitia.

SHARE ELKARTEA SARIA

- A1. Julen Apeztegia eta Joxi Lopetegui.
- A2. Felix Santano eta

jokatuko da, eta txapelketa bakoitzean bikote guztiek elkarren aurka jokatu dute. Igandero jokatu dira partidak, bi txapelketa bakoitzeko. 16:30ean hasiko dira beterranoen txapelketako partidak eta 18:00etan Share Elkarte

Aitor Artola.

- A3. Andoni Lizaso eta David Vinuesa.
- A4. Lukas Limousin eta Unai Sarasola.
- A5. Asier Gutierrez eta Beñat Sarasola.
- A6. Mikel Iturbe eta Urtzi Urkola.

Sariko parte hartzaileak. Behin ligaxka amaituta, txapelketa bakoitzean lehen lau sailkatuek finalerdia jokatu ditzuzte. Apirilaren 14ean izango da hori. Finalak, berriz, apirilaren 21ean izango dira.

Share Elkarteko Sarian 40 tantotara jokatu dute, eta Beteranoen Txapelketan bi set irabazten dituenak aurrera egingo du. Lehenengo bi set-ak 15 tantora jokatu ditzuzte, eta hirugarren-go beharko balitz, 10 tantotara jokatu litzateke.

Zeberio II.a Urkorekin batera lehiatuko da III. Sagardoaren Txapelketan

I. Garcia Landa Elduain

Erremonteko III. Sagardo Txapelketari hasiera emango diote bihar Hernaniko Galarreta frontoian. Bertan parte hartuko du Patxi Zeberio elduainarrak, Urkorekin bikotea osatuz. Datorren ostegunera arte ez dute parte hartuko txapelketan. Orduan Endikaren eta Barrenetxea IV.aren aurka jokatu dute.

Zeberio II.a eta Urko B taldean daude sartuta, beste lau bikotekin. Denek denek aurka jokatu dute eta finalerdietara lehen biak sailkatuko dira. Oriamendi enpresatik azaldu dutenez, bikote parekatuak egin nahi izan dituzte eta pilotari gazteei aukera eman txapelketetan jokatzeko.

Tolosako Sortu alderdiak azken batzarra egingo du kultur etxean, bihar

R. Calvo Tolosa

Tolosako Sortu alderdiak hirugarren batzarra egingo du bihar, hilak 16, 11:30etik aurrera. Orain arte bezala, kultur etxean elkartuko dira. Aurreko bi batzarretan oinarri ideologikoak eta ildo politikoak zehazteko bildu dira eta oraingoan antolakuntza eredu izango dute hizpide.

Bilera, berez, pasa den larunbatean egin behar zuten, baina inauteriak medio aste bete atzeratzea erabaki zuten. Herriz herriko azken batzarra izango da honakoa, izan ere, hilaren 23an kongresu nazionala egingo dute Iruñeko Baluartean; goizean izango da kongresua eta arratsaldean ekitaldia egingo dute Anaitasunan.

—1949—

Soterramenduko obrak dirauen bitartean

Arriaran gasolindegia **desabantailak,**

abantaila bihurtzen ditu.

TXARTELEKO

DESKONTUA

%50AN

GEHITU

GARBI EZAZU ZURE KOTXEA

DOHAIN

ARRIARAN GASOLINDEGIAN

GASOLINAZ HORNITUZ GERO

*OHARRA: Informa zaitzez promozio honetaz Arriaran gasolindegian.

ESTACION DE SERVICIO ARRIARAN, S.L.

LARRAMENDI, 28; 38 posta kutxa

20400 TOLOSA

GIPUZKOA

TEL. (943) 67.48.28

FAX. (943) 67.49.82

www.arriaran.com

GAURKO ESKAINTZA

Menu bikaina

dastatzeko aukera

Bidasoako haranean

BENTA OKALARRI

JATE TXEA

Kortxeak 3200

943 11760 - NAFARRA

Tel. 943 11 31

info@benetxeak.com

29€

berria

www.mauka.eu

Jon Maiaren orde- Alaia Martin etorriko da Herrira-ren bertso jaialdira

Arzallus, Lujanbio, Martin, Egaña, Soto eta Agirrek osatuko dute igande arratsaldeko saioko seikotea

Asier Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalaren laguntzarekin, Herrira-kotsailaren 17an antolatu duen bertso jaialdian azken orduko aldaketa bat egon da. Jon Maia etortzekoa zen Villabonako Olaederra kiroldegira, baina antolatzaileek bere ordeza Alaia Martin etorriko dela esan dute.

Gauzak horrela, igandean 17:00etan hasiko den bertso jaialdian, ondorengo bost bertsolariak egongo dira Alaia Martinek batera: Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Julio Soto eta Amaia Agirre, azken hau billabonatarra da.

Sarrerak 10 edo 12 eurotan

Bertso saiorako sarrerak egunean bertan erosteko aukera egongo da 12 eurotan, Olaederra kiroldegian. Aldez aurretik erosten di-



Bertso saioa iragartzeko Herrira-k atera duen kartela. HITZA

tuenak bi euro gutxiago ordaindu beharko ditu, 10 eurotan jarri baitituzte salgai ondorengo lekue-
tan: Villabonako Iratza, Iru Alde-
ta eta Amasa okindegian; Herna-

nin Garinen; Tolosan Rakun; Oiarzunen Makutxon; Donostian Herrian; Lasarten Artizarran; Andoaingo Irunderrin eta Beasainen Arranon.

Aurrera Saiazeko bikoteak partida guztiak irabaziz

Udaberri Txapelketako bost partida jokatu dituzte asteburuan eskualdeko pilotariek, Hernanin eta Tolosan

A. Imaz

Aurrera Saiaz pilota elkarteko bikoteek erakustaldia eskaini zuten asteburuan. Udaberri Txapelketaren barruan jokatuak izan ziren guztiak irabazi zituzten eskualdeko pilotariek. Norgheia-

gokak Tolosan eta Hernanin jokatu ziren. Elola-Lezeak, kadete-
tan, 22-14 irabazi zuten Hernanin aurka. Etxeberría-Balerdik gauza bera egin zuten jubentile-
tan, Sorluzeren aurkako lehian, 22-15eko emaitzarekin. Urdapilleta-Balerdik, maila berean, 22-21eko emaitza justuarekin gailendu ziren. Seniorretan, Mugika-Jauregik 22-20 irabazi zuten, Arrasateko bikotearen aurka. Azkenik, Ariztimuño-Galarraga bikotearen partida aipatu behar da, seniorretan, 22-16 irabazi zuten Gaztelekuren aurka.

→ Laburrak

Babes ofizialeko 28 etxebizitza

ANOETA Babes ofizialeko 28 etxebizitzaren zozketan parte hartzeko deialdia egin du Anoetako Udalak. Solkorre kale bukaeran egongo dira etxebizitzak, eta zozketan sartzeko interesa dutenek, «lehenbait» bete behar dute eskaera orria, Anoetako udaletxean edo Etxebiden. Udaletik azaldu dutenez, aurrerago zehaztuko dituzte zozketan sartzeko lehentasuna izango duten baldintzak.

Alurr Dantza Taldearen ikastaroa Atxulondon

ZIZURKIL Alurr Dantza Taldeak buruko zapiak nola jarri, oinetako egokiak nola aukeratu eta dantza jantzien inguruko ikastaroa emango du bihar, Atxulondo kultur etxean, 11:00etatik 12:00etara. Izena emateko udal bulegoetara, 943 69 24 95ra deituz edo bulegoa@zizurkil.com helbidera idatzi behar da.

Aizkardi Mendi Taldeko kideak Nafarroara doaz

AMASA-VILLABONA Aizkardi Mendi Taldeak irteera antolatu du igande honetarako, hilaren 17rako. Zazpi orduko ibilbidean 26 kilometroko bidea egin nahi dute, Zubieta, Ireber eta Beruete inguruetan. Irteera guztietan bezala, Olaederra kiroldegian aurretik irteera gogozan goiz, hain zuzen ere, 07:00etan. Egun bateko irteera denez, igande iluntzean itzuliko dira herrira.

Bi eguneko eski irteera Ikastolen Elkartearekin

AISIA Ikastolen Elkarteak bi eguneko eski irteera antolatu du, martxoaren 2tik 3ra. 11 urtetik 16ra bitarteko ikasleentzat izango da, eta eski alpinoa praktikatu dute, Pantikosako eski estazioan. Ikasle bakoitzeko 139 euroko kostua du bidaiak. Gutxienez 35 ikasleko taldea osatu nahi dute, eta horrela ez balitz lortuko, irteera bertan behera geldituko litzateke. Izena emateko ikastoletako idazkaritzan galdetu behar da. Izen abizenak, adina eta gurasoen sinadura bete behar dira lehenbailehen irteerara joateko.

Gurea zinema berpizteko bono komunitarioak jarriko ditu udalak

15 euroren truke bost sarrera erosteko aukera egongo da; bonoen jabetza ez da ikusle bakarrera mugatuko

A. Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak garai zailak bizi dituen Gurea zine aretoa indar berri nahi du. Horre-

tarako, enpresa kudeatzailea aldatu eta udalaren parte hartzea handitu du.

Udalak Gurea zinema iraunarazteko apustu garbia egingo duela esan du, eta jadanik, ikusleak erraztasun handiagoz aretora hurbiltzeko hainbat neurri ditu: «Bonoak jarri ditu salgai Amasa-Villabonako Udalak. Prezioa 15 eurokoa da, eta bono bakoitzak 5 sarrera ditu. Orain salgai dauden bonoek 2013ko apirilaren 30era

arte balio dute, eta, gainera, bono bakoitza pertsona batek baino gehiagok erabili dezake; eta film emanaldi berean, nahi izanez gero».

Bono komunitario hauek erosten dituztenek, sarrera 3 eurotan izango dute, beraz. Neurri honekin batera, programazioa hobetzen saiatuko direla esan dute. Herritarrei euren ekarpena egitea ere eskatu die, kultura@villabona.net helbidera idatziz.

25 URTE ZUREKIN

eskeintza bereziak!

Irudi

LEAPAINDEGIA

IRUDI

leapaindegia

Eskolagintako

leapaindegia 1

Tfn: 943 674 526

TOLOSA

Jada bi aldiz eskaini dute *Gazta zati bat* dokumentaleko musika banda; irudian Hernanin eskainitako lehen kontzertua. JOSE LUIS NAVARRO OTERO

‘Gazta zati bat’ laneko musika banda zuzenean entzuteko aukera, Leitzan

Igandean entzun ahal izango da, 19:00etan, zineman; Korrika Kulturalaren barruko emanaldia da

Rebeka Calvo Leitza

Esne Beltzako Xabi Solanok eta Zigor DZ zizurkildarrak musika proiektu berri bat mamitu dute Korrika Kulturalaren barruan. Esne Beltza taldeak 18. Korrikaren abestia egin du, eta bertako Solanok eta Zigor DZk *Gazta zati bat* dokumentalaren soinu banda, eta biak uztartuz, orain, filmeko musika eskaintzen ari dira herri herri.

Bi musikariak ez daude bakarrik ordea, eta abentura horretan Esne Beltzako baxu jotzaile, Aitor Zabaleta leitzarra, eta Keu Agirretxea dituzte bidelagun. Laukoak, ordea, beste gonbidatu bat du taula gainean: Udane Juaristi margolaria.

Aitor Zabaletak azaldu duenez, proiektu berri hau «dokumentaletik heldu da, «zergatik ez eman soinu banda eszenatokira?» galderaren egin genuenean».

Emanaldietan, hala ere, *Gazta zati bat* laneko musika baino gehiago ere eskaintzen dute: «Dokumentaleko musika bakarrik jota emanaldia motz geratzen zenez, kontzertu oso bat osatzeko, Keu Agirretxearen abesti batzuk eta Esne Beltzaren moldatutako abestiren bat edo beste sartu ditugu». Ordu eta laurden guztira. «Emanaldia goxo eta lasaia da», gaineratu du baxu jotzaileak.

Udane Juaristik, bere aldetik, hitzorduro marrazki desberdin bat egiten du kontzertuak irauten duen bitartean, eta emanaldi guztiak bukatzerakoan, erakusketa moduko bat egitea da beren asmoa.

Kontzertuak otsaila eta martxo bitarte egingo dituzte, gehienak Korrika Kulturalaren barruan, bi izango direlarik ekimen

■ **Ikusi Hernanin emandako lehen emanaldiaren bideoa.**



netik kanpo eskainiko dituzten kontzertuak. Korrika Kulturalaren barruan hurrengo emanal-



Guretat berezia da jendea parean geldi eta eserita ikustea. Oso aberasgarria izaten ari da»

AITOR ZABALETA
Esne Beltzako baxu jotzaile

diak hauek izango dira: hilaren 24n Amurrión joko dute, eta martxoaren 3an, 9an, eta 10ean Donostian, Ordizian eta Gernikan, hurrenez hurren.

«**Lan asko egin dute**»

Leitzarrak dioenez, guztia moldatzea lan asko izan da, batez ere Xabi Solano eta DZrentzat. «Jendea bilatu behar da, denak elkarrekin, entsatu, abestiak moldatu... Udane Juaristirekin ere hitz egin behar zen, berak zenbat denbora beharko zuen ikusteko eta horren arabera guztia antolatzeke...», esan du.

Keu Agirretxea gitarrak jole eta abeslariari formatu hau ez zaio arrotz egingo, baina Esne Beltza-

ko gainontzeko musikarientzat esperientzia berria da guztiz. «Esne Beltzan jende asko gara taula gainean, eta hau formatu berria da, arraro egiten da. Horrekin batera kontzertuen lekuak ere berriak dira, Leitzakoa kenduta, zinema dela, antzokiak dira denak. Eta guretzako berezia da jendea parean geldi eta eserita ikustea. Oso aberasgarria izaten ari da, sentsazio berriak sortzen dituenak», azaldu du.

Emanaldia herrian bertan

Zabaletak etxean joko du hortaz, igandean, Leitzan, eta hori «konpromiso gehiago» dela onartu du: «Urduitasun pixka bat gehiago izango dut, baina egia esan emanaldi bat gehiago izango da».

Leitzarra *Gazta zati bat* dokumentalaren soinu banda taula gainera eramaten ariko da datoen hila beteetan, eta hori gutxi ez, eta aldi berean Esne Beltzaren datorren diskoa ere prestatzen ari direla esan du. «Aurten Esne Beltza ia geldi egongo da, hiru kontzertu bakarrik geratzen zaizkigu, eta gero diskoa prestatzen eta grabatzen ariko gara. 2014. urtera arte ez dugu kontzertu gehiagorik izango», argitu du.

→ Laburrak

Korrikako materiala salgai, gaur, Zumadi eskolan

AMEZKETA » Gaur, Zumadi eskolaren aurrean 16:30etik aurrera, Korrikaren materiala saltzen ariko dira. Arropa erosteaz gain, Korrika laguntzaile egiteko aukera egongo da. Era berean, bihar Zazpi Iturri elkartean Korrikaren aldeko mus txapelketa jokatu dute 16:00etan hasita. Izena 15:30etik aurrera eman beharko da, eta bikote bakoitzak 12 euro ordaindu beharko ditu.

Kabaret ikuskizuna eskainiko dute Asvinenean

ADUNA » Asvineneak laugarren aldiz egingo du Kabareta hilaren 23an, 22:00etan. Sarrerak 5 euro balio du eta *Hernanikoa* antzezlan, *Slowwww* hip-hop dantza ikuskizuna, Txan Magoaren emanaldia eta *Expresamente* aire akrobaziak ikusi ahal izango dira.

Intxurreren pilota partidak, gaur

ALEGIA » Intxurreko pilotariak partidak izango dituzte, gaur, 19:00etatik aurrera, Alegian: Intxurre-Oiarpe, Intxurre-Azkoi-tia 1, Intxurre-EPLE eta Intxurre-2-Oiarpe 1.

‘Aktibo toxikoa’ antzezlan, Gaztetxean

IBARRA » Ibarroko gaztetxeak 20 urte betetzen ditu aurten, eta hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu. Gaur 19:30etik aurrera *Aktibo toxikoa* antzezlan ikusi ahal izango da.

‘Sarea korapilatzen’ hitzaldia antolatu dute

LEITZA » Leitzako institutuko guraso eskolak *Sarea korapilatzen* hitzaldia antolatu du aste-arterako, 16:00etan. Hitzaldia gurasoei gazteak sare soziale-tan nola dabilzan azaltzeko izango da. Susana Manzanedo psikologoak emango du.




TOLOSA HITZA

‘Gazta zati bat’ dokumentalaren soinu banda ZUZENEAN

Otsailak 17 • Igandea 19:00

Leitzako zinema aretoan



sarrerak

saridunak
3 sarrera pare

Maria Dolores Juantorena Baleztena (Leitza)
Inma Lopetegui Etxeberria (Irura)
Bittori Tolosa Salsamendi (Tolosa)

saridun bakoitzak bi sarrera izango ditu, herrietan bertan Sarrebetun txartela erabiliz

Inaxio Perurena ◉ Harri jasotzailea

300 kiloko harria jaso eta gero, orain pixkana harriari kiloak gehitu eta eguneroko entrenamenduekin jarraituko du.

«Niretzat astero harriak jasotzen jarraitzea nahiko erronka bada»

Iñigo Terradillos Leitza

Hirugarrenean lortu du Inaxio Perurenak (Leitza, 1984). Iragan igandean Leitzako Amazabal pilotalekuan altxa zuen jendaurrean 300 kiloko harria. «Oso gustura» dago, lanean gogor jarraitzeko gogoz.

Zer moduz sentitzen zara igandekoa eta gero?

Oso pozik nago, gainetik pisu handia kendu banu bezala.

Nola gogoratzen duzu jasoaldia?

Zuk duzun sentsazioa da jasoaldia oso motela izan dela, mugimenduetan indarra topera ari baitzara egiten. Gero ordea, irudiak ikusterakoan bestelakoa da sentsazioa. Gerrian biratu nuen, oso oso ongi, batere balantzarik egin gabe, eta oso kontrolatua joan zen dena.

Bazirudien hirugarren kolpea eman ostean ez zinela berdintzeko gai izango.

Hirugarrena eman ondoren gelditu egin nintzela zirudien. Hiru kolpe horietan arnasa kontrolatzea oso garrantzitsua da, pisu hori bularrean duzunean, ezin baituzu arnasarik hartu. Harria airean dagoenean saiitzen zara aire pixka bat hartzen. Altxaldian, hiru kolpeak oso ongi joan ziren, eta arnasa oso ongi berritu nuen. Beraz, hirugarren kolpea ematean bularretik fresko nengoen, gelditu eta oso ongi pentsa-

tu nuen hurrengo kolpean. Hiru kolpe horietan estu estu egongo banintz, berdintzen saiatu beharko nuke berehala, baina, honetan gelditzeko aukera izan nuen.

Eta azkenean berdindu egin zenuen.

Jendea oihuka hasi zen, epaileak buruarekin baiezko keinua egin zidan, eta ni, oso pozik. «Hauxe duk, egin diat!», pentsatu nuen. Orduan, saiatu nintzen desko-nektatzen, eta entrenamenduetan egin ohi dudana moduan bigarrenez altxatzen, jendeak ere berriro ikus zezan. Baina, ezinezkoa izan zen, denbora guztian altxaldia bainuen buruan.

Aurrekoetan urduritasuna izan da zure arerioetako bat.

Igandean dezentez lasaia goen. Harria altxatu aurretik esan nion laguntzaileari: «A ze alua den une hau!». Dena den, oso desberdina izan zen aurreko ahallegineko unea, hau da, azaroaren 25ekoa, eta iragan igandekoa. Azarokoa hilabete askoz plazara irten gabe iritsi zen, eta askoz urduriago nengoen.

300 kiloko jasoaldia eta gero nola geratzen da gorputza?

300 kiloko harri bat bularrean jartzen badizute segundo gutxiren buruan arnasik gabe hasten zara geratzen. Entrenamenduetan behin eta berriz altxatzearen ostean, arnasa errekuperatzen ohi-tzen zara. Hala ere, behin harria altxa eta lurrera botatzen duzu-



ASIER IMAZ

nean, nekatuta ezezik, minberta geratzen zara, ederki sentitzen duzularik harria gorputzeko zein zonaldeetatik igaro den.

Hemendik aurrera pixkana kilo gehiago gehituko dizkiozu harriari?

Igandean harriak baskularen gainean eta epailearen aurrean 300 kilo eta 400 gramo pisatu zuen, beraz, kilo bat eta pixka bat gehiago gehituta 302 kilo izango lirakeke. Pixkana egingo dut. Dena den, aste hau nahiko arraroa izaten ari da, elkarrizketak edota erreportajeak ari naizelako egiten batean eta bestean. 300 kiloko harri bat altxatzeko gauzak ongi egin behar dira zure entrenamenduak eta orduak ongi errespetatuz. Hemendik aurrera ikusi beharko dut gorputza nola dudana kiloak gehituz joateko.

Oraingoz, beraz, erronka zehatzik ez?

Hor jarraitzea da niretzat erronka. 300 kiloko harria altxatzea ez da egun batetik bestera egiten den zerbait. Niretzat aste guttiko entrenamendua da, eta astean zehar gorputza ondo ikusten badut, badakit asteburuan harria altxatu ahal dudana ala ez. Beraz, nahiko erronka bada, astero astero ha-

rria altxatzeko lanean jarraitzea. Lehenengo plazaratzea 302-303 kilorekin-edo izango litzateke, etxean ongi prestatu eta gero.

Zailtasunak izan dituzu gorputzarekin, eta denbora batez udan harria altxa gabe ere egon zinen. Ondo erantzun al du gorputzak?

Altxaldia eta gero mina sentitzen

«Gorputzaren arabera, pixkana harriari kiloak gehituz joango naiz»

dut, baina min ezaguna da. Bada- kit 300ekoa altxa eta gero ziztadak sentituko ditudala, baina nire ohiko entrenamenduak egin eta gero buelta ematen diot. Bel- durra ere ematen dit, pisu handi- ko entrenamendu hauen eragi- nez hernia dudana zonaldea gehie- gi mintzen ari naizenez berriro ere dena gelditu beharko dudana, eta pisu txikiagoarekin hasi. Ea ez den horrelakorik iristen.

Lau izen daude orain 300 kiloko harria berdindu dutenen zerrendan.

Gauza handia da. Nik altxaldiko unean ez nuen hori buruan, 300 kiloko harriarekin buelta asko

eman behar izan baitut. Beraz, ze- rrenda horretan sartzeak baino gehiago, harria altxatzeak eman zidan poz handia, asko kostatako unea izan baita. Hiru izen horie- kin batera historian sartzea, gau- za handia izan arren, burutik ken- tzen saiatu naiz, eta eguneroko martxan jarraitu dut.

Aitarentzat handia izango da seme- ak horrelako erronka gainditzea.

Igandean urduri zegoela eta mal- koren bat ere isuri zuela esan di- date, eta hori normala da. Ez aita izategatik soilik, izan ere, berak une hori ere igarota du, eta badaki zein gogorra den.

Igandeko jaialdian Joseba Esnaola berrobitarrak ere parte hartu zuen. Harri jasotzaile gazteak ere badatoz atzetik.

Nabari da Esnaolak indarra due- la, eta bizkorra da, beraz etorkizu- na izan dezake mundu honetan. Askotan gertatzen da mutil batek afizio handia izan dezakeela, bai- na agian ez dakiela nondik eta nola hasi. Beste askotan, berriz, hasi egiten dira, baina ez dute ja- rraitzen, gazteek segituan altxa- tu nahi izaten baitituzte pisu han- diak.

◉ leitzaldea@hitza.info

◉ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



**-Eskertza-
Escolastica
Ayerza**

Oroitzen zaitudanean ama, amona, sukaldean egoten zinen mahaia bostentzat jarrita, aulkian exeri eta leihotik begira, eta orain nahiz aulkia hutsik ikusi inoiz baino gertuago sentitzen zaitut.

Bere aldeko meza, bihar, OTSAI- LAK 16, 19:00etan Txaramako ka- pilan izango da.

TXARAMAN, 2013ko otsailaren 15ean



13°
2°

GOIZA LAINOTUA
ARRATSALDEA LAINOTUA
BEROENA 18°
HOTZENA 10°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzalea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibaraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

NATUR HOUSE

Elikaduran eta dietetikan adituak



**Zure giltzurruna
da gehiegikeriak
pairatzen dituen**

ZURE ORGANISMOA GARBITU

Alkatxofa, errefau beltza eta kamamila estraktuek zure organismoa garbitzen laguntzen duten ezaugarriak dituzte; gainera, modu progresiboan, pisua galtzen lagun dezakete.



Kupoi hau ekarri eta LEVANAT PLUS erostean FIBROKI gaileten kaxa bat emango dizugu opari Tolosako Naturhouse dendan (Nafarroa etorbidea, 1 Tel. 943 650 795).

NATUR HOUSE
Elikaduran eta dietetikan adituak



Jarrai gaitzazu Facebook orrialdan
www.facebook.com/Spain.NaturHouse

www.naturhouse.com

* Kupoia 2013ko otsailaren 28ra arte erabili daiteke **HTZT**